



AURTENGO BEREZITASUNA: «PARTE-HARTZEA»

Zizurkilgo jaietan gaur izango da egun handia, eta asteburura arte luzatuko dira jaiak; Autoen Slaloma ere izango da >I+V

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteartea
2008-09-09

VIURTEA 1.503.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

PATXI ZEBERIO ERREMONTISTA

«Urrutiaren garaipena ondo hartu dut; bera ni baino gehiago izan da»

ELDUAIN Banakako erremonete txapelketa irabazi ez arren, «gustura» dago, «txapelketa ona» egin duelako

ATSEDENALDIA Urriari atsedena hartuko du elduaindarrak; «partida asko jokatu ditut, eta lasaitzeko unea iritsi zait»



Alkizan asto lasterketa herrikoia egin zuten herenegun; partaide guztiak moztarotuta jarri ziren astoen gainean. Barreak izan ziren nagusi ekitaldi honetan. A.O.

Espainiako Txapelketan irabaztea lortu du Itsaso Leunda hernialdearrak

TXIRRINDULARITZA Taldeko lana egitera joan eta ezustekoa eman zuen 3

Eider Imaz ibartarrak deklaratu du EHAKren auzian, inputatu gisa


POLITIKA Tolosaldeko ezker abertzaleak elkarretaratzeak deitu ditu hainbat herritan 7

IA HERRI GUZTIETAN, JAIEI ADIO

TOLOSALDEA Atzo eta herenegun amaitu zituzten jaiak eskualdeko herri gehienetan, hau da, Alkiza, Elduain, Lizartzan eta Bedaio eta Izaskun auzoetan; Zizurkilgo ez dira amaitu oraindik 5



bidali opor hauetako argazkiak!



Sari nagusia

2. saria

3. saria



Beti Alai jatetxea



Amorotoko Altuena landetxean, bi pertsonentzako bi gauerako egonaldia.

Tolosako Beti Alai jatetxean, bi pertsonentzako bazkari edo afaria.

Ibarrako Azoka dendak eskainitako saski berezia.

ARGAZKIAK NORA BIDALI

• P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
• Postaz: Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte hartzaile eta boto emaleen artean HITZAko materiala zozketatuko dugu!

HITZA udako argazki lehiaketa

OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info webgunean

Ekintza Plan Globalean parte hartu nahi dutenentzat, azken aukera

Tolosa » Eguneroko ohiturak aldatuz, aurrezten erakusten du ekimen honek; igandean amaitzen da izena emateko epea.

ERREDAKZIOA

Igande honetan amaituko da Tolosako Ekintza Plan Globalean izena emateko epea. Hau nazioarteko plan bat da, eta Nazio Batuen Ingurumen Programaren babesua du eta Unescoren bermea. Plan honen helburua da pertsonen bizi baldintzak hobetzea, ingurumenean duten eragina apalduz. Ekimen honetan parte hartu nahi dutenek www.udalsarea21.net webgunean eman dezakete izena.

Plan honetan, etxean bertan egin daitezkeen hainbat ekintza sustatzeko sistema erabiltzen dute. Egitasmo honek hainbat jokoera aldatzen laguntzen du zenbait arlotan. Sortzen dugun hondakina, uraren eta energiaren kontsumoa, eta garraioaren erabilera dira jorratzen diren atalak.

Tolosako 6.804 familia gonbidatu dituzte programa honetan parte hartzera. Plan hau jarraituz gero, lehen gaien kontsumoa eta kutsadura gutxitzea lor daiteke. Baita bizi kalitatea hobetzea ere, «kontsumoa benetako beharretara modu eraginkorragoan egokitzuz». Azkenik, plan hau aurrera eramaten duten familiek etxeko gastuak murriztuko dituzte.

Programa honen bitartez, ingurumena hobetzeko aholku praktikoak biltzen dituzten lau eskuliburu jasoko dituzte eskatzaileak. Hilean bat. Lehendabizikoa datorren astelehenean bertan izango dute,



Banatu den lehen liburuxka garraioaren ingurukoa izango da. HITZA

eta hau garraioaren ingurukoa izango da. Eskuliburuekin batera, lau galdera-sorta banatu dira, egindako aurrerapenak ebaluatzeko. Gainera, programa burutzen dutenek Etxe ekologikoaren ziurtagiria jasoko dute.

Aipatu bezala datorren astean banatuko dituzte plana jarraitu nahi dutenen artean, eskuorriak. Alde batetik, aholkuz betetako liburuxka bat jasoko dute eta besteetik, garraioaren inguruko galdeketa orria. Herritarrek, lehendabizi, liburuxka irakurri aurretik, beraien eguneroko ohiturak zeintzuk diren adieraziz, galdeketa orria bete beharko dute. Ondoren, hau bidali beharko dute postaz, eta

hiru asteren buruan, beste galdeketa orri bat jasoko dute, ea epe horretan ohiturak aldatu dituzten edo ez baieztatzeko. Prozedura bera jarraituko dute hurrengo hiru gai edo arloekin ere.

Programa hau bera internet bidez jarraitu daiteke. Gainera, Udalekoek sistema hau gomendatzen dute.

Garapen iraunkorraren programa

Garapen iraunkorraren 2002-2020 Euskal Ingurumen Estrategiak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleek planetaren oraina eta geroa bermatzeko hartu beharreko ingurumen-konpromisoak

sustatzeko dituzte. Ekintza Plan Globalak (GAP) berriz, oso ohikoak diren zeregin batzuetan jendearen eguneroko jokabideak hobetzen laguntzen du. Orain artekoetan, 55 udalerritako 17.000 familia baino gehiagok parte hartu dute programan, eta hau lortu da: etxean 300 tona hondakin gutxiago sortzea, 50 milioi litro ur gutxiago kontsumitzea eta 4.000 tona CO2 gutxiago aireeratzea.

Aurten, Euskal Autonomia Erkidegoan, 144.000 familiak programa jarraitzea aurreikusten da. Tolosan, orotara, 6.500 familia bizi dira, eta hauetatik 340k jarraitzea espero dute ekimenaren sustatzaileek.

Kolektorearen obren heren bat gauzatu dute

Tolosa » Lanak aurrera doaz; hemendik aurrera, Kondeaneko Aldapa irekida dago berriro trafikoarentzat.

ERREDAKZIOA

Saneamenduko kolektorea eraikitzeko lanak aurrera doaz pixkanaka. Udalak aditzera eman duenez, dagoeneko proiektuaren heren bat gauzatu dute. Gainera, Kondeaneko Aldapa kaleko eraikuntza lanen gauzatzeari amaitu da eta kalea zirkulaziorako zabaldu dute berriro. Hala ere, galtzadaren margotze lanak falta dira.

Eusko Jaurlaritza, 'Ura' Uraren Euskal Agentziaren bitartez, eta Tolosako Udala Orieta eta Zelai ibaietako kolektorea eraikitzen ari dira, uren kalitatea eta saneamenduko sistema hobetzeko. Tolosako ur zikin guztiak bilduko dituen kolektoreak 2,5 kilometroko luzera izango du. Benta Haunditik hasi eta hirigunera iritsiko da San Frantzisko eta Rondilla kaleen azpitik igaroz eta berriz ibaira aterako da Arramele zubiraino iritsiz. Proiektuak 1,5 kilometroko luzerako adar baten eraikuntza ere jasotzen du. Honek, egun Zelai ibaira iristen diren ur zikinak bilduko ditu Ibarren eta kolektore nagusiarekin lotuko ditu, San Frantzisko kale azpian.

Pasaban Manaslurako bidean da dagoeneko

Tolosa » Oinarrizko kanpalekura igande honetan ailegatuko direla aurreikusten du mendizale tolosarrak.

ERREDAKZIOA

Edurne Pasabanek ekin dio Manasluko espedizioari. Nepalgo Himalaian dago 8.163 metroko gailur hau. Oraindik Arughat Bazarrera inguratu dira, eta hemendik abiatuko dira gailurrerako bidean. Biendiaren mabalera oinez gerturatu dira.

Beraien aurreikuspenen arabera, bederatzik egun beharko dituzte

oinarrizko kanpalekura iristeko. Hau 4.800 metrora dago kokatua eta igande honetan zapalduko dute espero dutela azaldu dute mendizaleek. Beraiekin batera 3.000 kilo eramango dituzte materiale eta jakietan.

Manaslu igoz gero, Edurne Pasabanen 11. zortzimilakoa izango litzateke. Urte honetan bertan, maiatzean egin du 10.a, Dhaulagiri, hain zuzen ere.

Normalean, hilabete inguru behar izaten dute mendizaleek espedizio bat egiteko. Lehendabiziko egunetan, ingurura egokitzen saiatzen dira, eta behin hau lortu dutenean, gailurrerako bidea hartzen dute.

Laburrak

Rosa Maria Gullonen margoak ikusgai, Lanbroan

TOLOSA » Rosa Maria Gullonen margoak ikusgai daude egun hauetan Lanbroa tabernan. Loreak ikus daitezke, oleo eta espatura metodoarekin egindako artelanean. Hili honen azken arte egongo dira Tolosako tabernan zintzilik.

Euskal Jaieren prestaketak ere aurrera doaz

ANOETA » Euskal Jaia antolatzen ari dira Anoetan urriaren 12rako. Egitaraua ere prestatuta dute: goizean herriko txistulariak eta Loatzoko musikariak ariko dira. Goizean ere nekazal azoka izango da, baita haurrentzako herri kirolak, barrikotea eta pintxoak ere. 14:00ak aldera herri bazkaria egingo dute frontoian eta txekor erre prestaketa dute. Bazkaldu eta gero Landarren emanaldia. Gero, herri kirolak izango dira eta arratsaldean talogileak izango dira eta baita erromeria ere. Bazkarirako izena emateko aukera dago urriaren 5era arte herriko taberna guztietan. Bestalde arduen banaketa egin da eta Itzuli tabernan eman daiteke izena. Bilerak ere egingo da gaur, 18:30ean, udaletxean.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Isarralde. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Eskolaren inaugurazioa egingo dute larunbatean hainbat ekitaldirekin

Larraul » 12:00etan hasiko dira ekitaldiak eta besteak beste, eskola zaharrean egondako ikasleei omenaldia egingo zaie.

ERREDAKZIOA

Badira 35 urte Larraulgo eskola zaharra itxi zela. Aste honetatik aurrera ordea, berriz ere Larraulgo haurrek herriko eskolan eta haurtzaindegian gelditzeko aukera dute. Eskolak berriro atek ireki dituela ospatzeko inaugurazio jaia egingo dute herrian hilaren 13an, larunbata, 12:00etan hasita, eskolan bertan.

Egitara osoa izango du inaugurazioak. Hasteko, txalaparta saioa izango da inaugurazio jaia hurbiltzen direnei harrera emateko. Ondoren, Xabier Mujika alkatearen, Maider Sanz Guraso Elkarteko lehendakariaren eta Irene Olazabal eskolako zuzendariaren hitzak entzun ahal izango dira.

Larraulgo Eskola zaharrean ibilitako ikasleei omenaldia egingo zaie horren ondoren. Eskola zaharreko eta eskola berriko ikasleen artean haritza aldatuko dute. Jarraian, eskolari jarritako bertso sorta kantatuko dute, musikaz lagunduta. Eskolari eginiko eskulturaren aurkezpena izango da hurrengoa eta pintxo dastaketa eta Herriko Ostatuan egingo den bazkariarekin amaituko dira ekitaldiak.

Bederatzi ume hasi dira

Larraulgo herrian azken urteotan etxebizitza asko egin dira eta familia berriak joan dira bizitzera. Haur kopuruak asko egin du gora, eta

datoren urteetan joera hori mantenduko dela ikusirik, eskola eta haurtzaindegi proiektua bultzatzen aritu dira Udala eta Guraso Batzordea, elkarlanean.

Hasieratik helburua izan da Larraulgo umeek 12 urtera arte herrian bertan hazi eta ikasteko aukera izatea. Dagoeneko, eta oso denbora gutxian «zailena lortu da, alegia, zerbitzua martxan jartzea», azaldu dute proiektuaren bultzatzaileek.

«Zailena lortu da, alegia, zerbitzua martxan jartzea», azaldu dute eskolaren bultzatzaileek

Gaur hasi dute ikasturtea Larraulgo umeek eta bi irakasleek, bederatzi ikasle hasi dira Larraulgo eskolan: 2 urte dituzkienak eta 4 zaharrenak. Hurrengo urtean, hamabost haur izango dira ikasturtea hasiko dutenak. Haurtzaindegian, berriz, hiru haur hasi dira, bi zaintzaileekin.

Asteasuko Pello Errota eskolaren zati da Larraulgo gela. Beraz, Larraulgo eskola ematen duten irakasleak Asteasuko eskolako lantaldean ari dira.

Eskainiko diren zerbitzuak

Sei urtez beherako umeek dute eskolan aritzeko aukera eta Antton Amonarriz kultur etxe berriaren kokatua dago. Jangela zerbitzua ere izango du eta hau, berriz, Herriko Ostatuan emango da.

Bestalde, haurtzaindegi zerbitzua Antton Amonarriz kultur etxeko beheko solairuan eskainiko dute eta zerbitzu hori Partzuergoaren eskutik joango da.

Joxi Lopetegik Europako Kopa irabazi du xarean Funosas bikotearekin

Irura » Irungo Ramuntxo Berri trinketean, 40-26 irabazi zioten Driolletek eta Systiaguek osatutako bikoteari.

ERREDAKZIOA

Joxi Lopetegiri irurarrak trinketeko Europako Kopa eskuratu du xarean, Funosas bikotearekin. Irungo Ramuntxo Berri trinketean lortu du txapela, 40-26 irabazi ondoren Driolletek eta Systiague bikoteari.

Lopetegiri azken urteotan xarean

ren goi mailan dabil Hazparneko (Lapurdi) Funosas atzelariarekin batera. Europako Kopan bera izan zen gipuzkoar bakarra final batean izan zena, trinketean jokatu ziren beste modalitate guztietako finalista Iparraldeko pilotariak baitziren. Hain justu, Lopetegik berak Hazparneko talde batean jokatu du, Behar-Zana pilota elkartearen izena emanda egon arren.

Dirudienez, Kuban datorren hilean egingo den Munduko Kopan ez du parte hartuko, baina laster hasiko da parte hartzen Iparraldean jokatu diren txapelketetan.

Ezustekoa eman du Itsaso Leunda txirrindulariak Espainiako txapelketa lortuz

Hernialde » Taldeko lana egitera joan zen Euskadiko selekzioarekin eta azkenean Txapelketa irabazi zuen.

IMANOL GARCIA

Ezustekoa eman zuen Itsaso Leunda hernialdearrak Espainiako Errepideko Txirrindulari Txapelketan. Eta berak ere hartu zuen ezustekoa, espero ez zuen saria jaso baitzuen: Txapelketa irabaztea.

Euskadiko selekzioarekin joan zen Valladoliden amaitu zen proba, taldeko buruontzako lan egitera, tartean Leire Olaberria ikaztegiarra eta Arantzazu Azpiroz berastegierra. «Nire lana zen lehenengo 20 kilometroetan ahal zenuen eta mendatea igotzerakoan ez nuen ia ikusten. Baina nire buruari esan nion dena eman behar nuela eta harrapatzen saiatu behar nuela», dio hernialdearrak. Azkenean harrapatu zuen eta ikusi zuten txirrindulari bat ere sartu zen, Saioa Olite.

Ihesaldiak aurrera egin zuen eta



Itsaso Leunda. UR ALGERO

La Garganta mendatean, Saioa Olitek erasotu zuen. Atzetik joan zen Fatima Blazquez txirrindularia eta aurre hartu zion Oliteri. Hori ikusirik, Leundak ere erasotzen zuten eta Blazquezen atzetik joan zen. «Nahiko distantzia hartu zuen eta mendatea igotzerakoan ez nuen ia ikusten. Baina nire buruari esan nion dena eman behar nuela eta harrapatzen saiatu behar nuela», dio hernialdearrak. Azkenean harrapatu zuen eta ikusi zuten bien artean erabakiko zela txapeladuna.

Leundak ez zuen sinisten egotea

ra horretan egon zitekeenik, hau da, Txapelketa irabazteko aukerarekin. Mesfidati zebilen, halere: «Berak eskarmentua du eta nik ez nuen ezer ere ez. Bera hasi zen erasotzen denbora guztian eta nik heldu egin nion. Zuzendariak esan zidan azken kilometroak erasora jotzeko eta horrela egin nuen», dio. «Ez nuen atzera begiratu ere egin ikusteko atzetik etortzen zen edo ez». Helmuga pasa arte ez zen txapeladun sentitu Leunda.

Berez, triatloiarra

Denboraldi hasieran Debabarrena talde txirrindularitza aritzeko gonbita jaso zuen. Leundak baiezkoa eman zuen, triatloiarrentzako prestaketa bezala erabiltzeko baldintzarekin. Izan ere, denboraldi honetan buru-belarri aritu da triatloian eta emaitza oso onak lortu ditu. «Oraindik ez dituzte puntuazio guztiak azaldu, baina seguruenik Euskadiko Txapelketa eskuratuko dut», dio.

Datorren denboraldira begira, ez daki oraindik nondik joko duen Leundak: «Espainiako txapeladuna izateak pisu handia du eta ikusi beharko dugu zer aukera sortzen diren».



EUSKADIKO EKONOMIA
INDARBERRITZEKO AKORDIA

OSO GERTU SENTITUKO DUZU



12.800 milioi euroko inbertsio publikoa 4 urtetan.
Euskadin ekonomia eta enplegua indarberritzeko batu gara euskal erakundeak.
Eta zuk oso gertu sentituko duzu.


Diputación Foral de Alava
Arabako Foru Aldundia


BFA DFB
Euzko Foru Aldundia
Euzko Foru Aldundia


Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Anttoni Sagastumeren 100. urtea

ALEGIA ● Anttoni Sagastume Lasak atzo 100 urte bete zituen. Alegiarrik helduena da Anttoni, sasoi bikainarekin, gainera. Atzo bere urtebetetzea izanik Udalak bisita egin nahi izan zion eta Aitor Sarasola alkatea eta Joxe Manuel Oiarzabal joan ziren, berarekin eta familiako hainbat kiderekin

biltzeko. Lore-sorta «dotorea», tarta, txanpaina eta guzti, familiak gogoxo 100. urte hau elkarrekin ospatzeko. Sei seme-alaba, 14 biloba eta 10 birloba dauzka Anttonik; «eta hauetako bi Ameriketara dauzkat», zioen. Arratsaldean jasoko zituen biloben eta birloben zorian beroenak. n.u.

Laburrak

Gaur kultura, gizarte eta ingurumen batzordea

AMEZKETA ● Gaur Amezketa baliogintzako gelan 20:30ean kultura, gizarte eta ingurumena batzordeak bilduko dira bilera egiteko asmoz. Bilera hau, beti bezala irekia da eta bertan oraingo honetan gai hauek landu eta jorratuko dituzte: pasa diren Bartolome Deunaren jaietako balantzea, Euskera Landu (Irakurketa taldea), Kultur Asteari buruz ariko dira, ikastaroak, 3. adinekoentzako hitzaldiak eta ibilaldiak, eta haur eskolako obrari buruzko informazioa emango dute bukatzeko.

Bihar Igaratzen meza ospatuko dute

ERLUIJOA ● Datorren igandean (hilaren 14an) Igaratzako basilizan meza izango da. Bereziki mendizaleentzat eta artzainentzat ospatuko dute meza, baina irekia da hurbildu nahi duen guztiarentzat. Bertako ermitan 12:00etan bilduko dira, Igaratzen. Meza Lazkaoko benediktarrek bideratuko dute. Udako azken meza berezia izango da igande honetako, hilabetero baina ospatzen joanez.

Final-laurdenen ondoren, finalerdiak jokatu dituzte datorren asteburuan

Amezketak » Asteburuan «parekotasuna» espero zuten, batez ere ostiralean baina ez da hori gertatu, garaipen argiak izan baitira.

ERREDAKZIOA

Amezketan asteburuan zehar XIX. Joxean Tolosa pilota Txapelketako final-laurdenetako bigarren asteburua osatu dute. Larunbateko partidak «gogorragoak izan ziren» ostiralekoak baino.

Ostiraleko partidetan parekotasun handiagoa espero zuten pilotariengandik, baina ez zen hala

izan emaitzetan ikusi ahal den moduan: «Pentsatzen genuen parekotasun handiagoko partidak izango zirela, eta frontoiaren betekadak ere hala ematen zuten, baina ez zen hala gertatu». Kadeteetan Aizpuru «bikain eta perfektu batek» 12-0 jarri zuen markagailuan eta Santxo 5 bakarrik egitera mugatu zuen Aizpuru.

Gazteetan, aurrekoen lezioa ikasita, Arrietak 10 tanto egin zituen jarraian (10-0) eta Mendinuetak 7 bakarrik egitea lortu zuen. Hemen ere, irabazleak alde handi samarra atera zion Mendinueta.

Nagusietan, «asko espero ge-

nuen arren, Onsalok erakutsi zuen aurtun txapelaren bila datorrela» 18-2ko emaitzarekin. Garaipen garbia, beraz. «Gozatu genuen hiru irabazleekin baina ez hainbeste galtzaileekin», gogoan du Xalton Zabala Zazpi-Iturri pilota eskolako ordezkariak.

Apezteak, min hartuta partida utzi egin zuen

Larunbateko partidak «gogorra- goak» atera ziren. Kadeteetan Gallurralde zen faborito, «baina herrian jokatzek ematen duen urduritasunak galdu zuen. Bereziartu argal baina arin bat ikusi genuen baina momentu guztian zer egiten dakiena». «Merezimendu

guztiz» irabazi zuen Bereziartuk larunbatekoa, 18-13ko emaitzarekin.

Gazteetan, aurtun dagoen «maila izugarriaren» adierazpide, «aurten ikusten ari ginen partidarik onenetakoa izan zen» eta Arzelus 15-14 irabazten zegoela Oier Apezteak goizuetarrak erretiratzea erabaki zuen, belauneko bihurritze baten eruz. «Oso-oso partida gogorra zihoan eta ikusten zen bietako bat puskatu beharrean izango zela». Xalton Zabalak esan bezala, lesio hau asko sentituz «hemendik ahalik eta azkarren osatu dadila desio diogu Oier Apezteari».

Bukatzeko, nagusien partida izan zen. Otxandorena eta Gorro-

» EMAITZAK

- **Kadeteak.** Aizpuru 18, Santxo 5.
- **Gazteak.** Mendinueta 7, Arrieta 18.
- **Nagusiak.** Larrañaga 2, Onsal 18.
- **Kadeteak.** Bereziartu 18, Gallurralde 13.
- **Gazteak.** Apezteak 14, Arzelus 15.
- **Nagusiak.** Gorrotzategi 10, Otxandorena 18.

txategi aritu ziren nor baino nor, eta azkenean Otxandorenak 18-10 Gorrotzategi hermaniarri irabaziz.

Beraz, oraindik ere aurtengo Joxean Txapelketan eskualdeko hainbat pilotari dabilza, batzuk pasa den asteburuan gelditu badi- ra ere. Finalean aritzeko aukerak ere ez dira gutxi.

Agerian da gutxinaka txapelketaren maila igotzen ari dela eta «finalerdien zain gaude orain». Beti bezala, ostiralean eta larunbatean jokatu dira partidak datorren astean ere, aurrerako zehaztuko dituzten jokalariekin, orain arteko maila «politari» eusteko asmoz.

@ Bideoak. Dagoeneko gure webgunean 60 bideotik gora daukazu ikusgai. Mota askotarikoak ikus ditzakezu. Horietan kirola, politika, dantzak, jaiak, bitxikeriak, natura eta beste hainbat gai ikus daitezke. Sar zaitze eta bideo hauek ikusten gozatu! Baietz zu azaldu!

www.tolosaldekohitza.info

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 755 762.

LANA


■ **Irakaslea.** Lazkaoko ingeleseko akademiarako irakaslea behar du. Bidali cv hizkuntzaeskola@gmail.com-era.
■ **Etxeko lanak.** Etxeko lanetarako, egunean 2 ordurako pertsona bat

behar da. Deitu 628 16 37 22 zenbakira.

■ **Irakaslea.** Gitarrako klaseak barka edo taldean. Interesatuak deitu: 630 92 59 97.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza bat hartuko nuke alokairuan Tolosan, Ibarra, Villabonan edo inguruetan. Harremanetan jartzeko: 635 71 24 44.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Bedaio. Atzo, meza entzuetik Artubi elkarterako bidea trikitixa doinuekin egin zuten. N. URBIZU



Alkiza. Jubilatuei urteroko bazkaria eskaini zien Udalak atzo, jaien baitan. I. GARCIA



Elduain. Trial erakustaldia ikusteko aukera izan zuten herenegun. HITZA

HURRENGOEI BEGIRA

Jaiak » Eskualdeko hainbat herritan izan dira azken asteburu luzean jaiak: Bedaion, Elduainen, Tolosako Izaskun auzoan, Lizartzan, Alkizan eta Zizurkilen; azken herri honetan ere gaur egongo da ekitaldirik eta asteburuan jarraipena izango dute.



Bedaio. Herri kirolak izan ziren herenegun: aizkolariak eta Irigoien. HITZA



Lizartza. Herritarrek antolatutako herri kirolean jende ugari izan zen. HITZA



Zizurkil. Haurrek jolasak egiteko aukera izan zuten herenegun. ANDER OTEZABAL



Lizartza. Udalak antolatutako herri kirola ez zen herritarrik agertu. HITZA

E **Elkarrizketa**

PATXI ZEBERIO » Erremontista



Patxi Zeberio eta Migel Mari Urrutia, larunbateko partidaren ostean, garaikurrekin. JOSEBA ZABALZA

«Ondo hartu dut Urrutiaren garaipena, gehiago izan da»

Elduain » Urrutiaren alde, 35-29, amaitu zen buruz buruko Casino Kursaal Txapelketaren finala. Zeberio txapelketa osoan zehar egindako lana azpimarratzen du.

R.CALVO

Patxi Zeberio erremontista kontentu ageri da pasa den larunbateko Casino Kursaal Txapelketaren finala eta gero. Egia da, Migel Mari Urrutiaren eraman zuen txapela etxera, baina «merezita» Zeberioaren hitzetan. Datoren hilabeteetan partida ugari ditu oraindik, baina ondoren urri aldean iritsiko zaio atsedendia. «Partida asko jokatu ditut eta deskantsatzeko garaia ere iritsi zait. Lasaitu eta deskonektatu egingo dut», dio. Herriaren gainera beti bezain ondo jaso zuten partida eta gero, afaria ere egin zuten eta ondoren «kristoren festa» egiteko aukera izan zuen elduaindarrak.

Buruz buruko Kursaal Erremonte Txapelketako finalean, beste behin ere, baina oraingoan, aurreko bitan ez bezala, ez duzu txape-

la Elduainera eraman. Nola gogoratzen duzu partidua?

Egia esan nahiko gustura hasi nintzen jokatzeko. Hasiera batean partida nahiko ondo eraman nuen, baina gero Urrutiak fuerte zegoela erakutsi zuen, batez ere sakeekin min asko eginez. Oso konzentratuta zegoen Urrutia eta partidaren erdi parean edo beheraldi bat izan nuen; ez nintzen oso ondo libratzen eta asko kostatzen zitzaidan pelota saskitik ateratzea eta nik uste dut orduan sartu zela Urrutia partiduan. Ni oso eroso ez negoela konturatu eta abantaila hartu zuten orduan. Ia 8-9 puntutako bentajarekin oso zaila zen horri buelta ematea.

Partidaren erdian edo konturatu zinen Urrutia oso fuerte zegoela. Horrela da bai, oso eroso zegoen, sake asko eginen zizkidan eta peloteoan ere berak kolpea oso erraz ateratzen zuen.

Urrutiaren erosotasunak kalte handia egin zizun, hortaz.

Edo nire deserotasunak. Zuzenean zortzi sake egin zizkidan, nahikoa, baina honetaz gain, gainera, nik defendatu bakarrik eginen nuen eta berak hori aprobetxatu zuen.

Azken bi urteetan buruz burukoan txapelduna, aurtengo faboritoa, hortaz. Nola hartu duzu elkarren segidako hirugarren txapela galdu izana?

Egia esan ilusioa nuen, batez ere txapelketa honetan oso fuerte nengoelako eta asko entrenatu dudalako, baina banekien galtzea ere posible zela. Ondo hartu dut Urrutiaren garaipena, bera gehiago izan da. Nik gainera oso txapelketa ona egin dut.

Finalurrekoan, hala ere, 35-19 irabazi zenuen Urrutiari.

Bai, baina finalurrekoetako Urrutia ez zen finalekoa izan. Ez zen ohiko partida izan; nik oso ondo jokatu nuen eta berak ere ez zuen ohiko maila erakutsi.

Txapelketa ona egin duzu, kontentu alde horretatik?

Kontentu nago bai, txapelketa ona egin dut eta. Baina onartu behar dut Urrutia ni baino gehiago izan dela eta horregatik zoriondu egin nahi dut. Bera ere urte askotan lanean aritutakoa da eta zoriondu egin behar zaio egindako lanarengatik, nahiz eta berak guk baino urte gehiago dituen aurretik. Buruz burukoak, gainera, ez da txapelketa bakarra.

Herriko parrokoa kritikatu du Otaolak, bizkartzainak direla eta

Lizartza » Herriko parrokoak elizara sartu aurretik PP alderdiko bizkartzainei pistolak kanpoan uzteko esan zien.

R.CALVO

Lizartzako jaiak direla eta meza nagusia zegoen atzo elizan. Udaltzeko zinegotziak, PP alderdikoak guztiak, eta alkatea, Regina Otaola, bakarrik joan ziren mezara, baina parrokoak euren bizkartzainei pistolak kanpoan uzteko eskatu zien. Zehazki, mezarekin hasi aurretik zinegotzietatik «iaz bezala» pistolak ez zituela elizaren barruan nahi esan zien elizgizonak.

Meza ematerakoan pakea emateko garaia iritsi zenean parrokoak pakerik ez dagoela eta ez zuen pakea eman nahi izan.

Era berean, PP alderdikoak mezarako bidean zirela herritar talde

batek elkarretaratzea egin zuen eliza kanpoan ikurriak gainean zitutela eta ez zuten inolako oihuririk egin.

Otaolak meza bukatu bezain laister prentsa-oharra helarazi zuten komunikabideei atzo eta bertan «euskal kleroko zati batek oraindik ere ardiak otsoekin nahasten» dituela esan zuen. Lizartzako apaizari bere aholkuak «pistolak beldurtzeko erabiltzen dituztenei eta ez babesteko eraman dituztenei» bideratzeko eskatu zion. «Parrokoaren egitekoa guztioi modu berean laguntzea da eta ez bizikidetzara ahusten eta ingurukoak, Lizartzako kasuan bezala, erasotzen dutenen aurrean begiak ixtea», gaineratu zuen.

Bestalde, Udaletxeak antolatutako herri-jokoak egin ziren atzo goizean, baina plaza hutsik zegoen. Herritar gehienak herriak antolatutako frontoiko pilota partiduan ziren, une horretan.

Laburrak

Pilates eta Wing-Tsun ikastaroak kiroldegian

IBARRA » Ibarako Belabieta kiroldegia ireki du ikasturte honetako ikastaroetako izen-emate epea. Ohikoak diren aerobic, yoga, spinning, cardio tono, gimnastika erritmikoa, pilota eta hirugarren adinekoentzako gimnastikarekin batera, Pilates eta Wing-Tsun ikastaroak ere prestatu dituzte. Izen-ematea kiroldegira bertan edota 943 67 14 44 zenbakian egin daiteke.

Urriaren hasiko du Alurr Dantza Taldeak ikasturtea

IBARRA » Alurr Dantza Taldeak urriaren hasiko du ikasturtea eta bertan parte hartzeko izen-emate epea Kultur Etxean egin behar da hilaren 26a baino lehen. Aipatu behar da Edu Muruamendiaren klaseak irailaren azken astean hasiko direla eta gainontzekoak urriaren lehen astean izango direla.

Amaitu da Munduko Lur Gaineko Sokatira Txapelketa

Ibarrak » Lander Otermin ibartarra ere izan da Suediako Stenungsunden ospatu den txapelketan parte hartzen.

ERREDAKZIOA

Pasa den igande honetan amaitu zen Munduko Lur Gaineko Sokatira Txapelketa Suediako Stenungsund udalerrian. Bertan, besteren artean Lander Otermin ibartarrak hartu du parte.

Lau urte ziren euskal taldeak ez zirela TWIFak, Nazioarteko Sokatira Federazioak, antolatutako txapelketa batean aritzen eta urrezko domina bat ere irabazi dute. Erandioko Goiherri taldeak jaso du saria, hain justu.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

EHAKren auzian deklaratu du Eider Imaz ibartarrak 22 kiderekin batera

Politika » Tolosaldeko ezker abertzaleak ikasturte hasiera honetan irakurketa politikoa plazaratu du.

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Nazionalako Baltasar Garzon epailea atzo hasi zen ezker abertzaleko 23 kideren aurkako galdeketa. Auzientzia Nazionalerako zitazioa jaso duten gizon emakumeek inputatu gisa deklaratu beharko dute EHAK alderdiaren aurkako auzian. Inputatuen artean Eider Imaz ibartarra aurkitzen da.

Espainiako epaileak «talde armatuarekin kolaboratzea» egotzi die inputatu guztiei, «beste hainbat delituen artean». Epailearen aurretik pasatzeko gelditzen diren ezker abertzaleko kideak gaur eta bihar deklaratuko dute.

Anoetan, Villabonan, Tolosan eta Ibarren batzar informatiboak eta elkarretaratzeak egingo dituzte bihar.

«Gerra estrategia»

Tolosaldeko ezker abertzaleak «PSOE herri honen aurka burutzen ari den gerra strategiaren barnean» kokatu ditu deklarazio eta inputazio hauek. «PSOE, Garzonen bitartez, beste 23 militante independentista espetxeratzeko bidea zabaldu nahi du. Delitu bihurtu baitute ezker abertzaleko militante izatea, Euskal Herriaren askapen borrokaren alde lan egitea. Eta horregatik, eta ez besterik, deitu dituzte deklaratzera».

Ezker abertzaleak jakinarazi duenez, ikasturte hasiera honetan «herri honek aurretik duen eraso zerrenda beldurtzeko modukoa da».

Lehen adibide bezala azken atxilotetak aipatu dituzte: «Iragan astean Iruñerrian, kale borrokaren aitzakiapean, ezker abertzaleko zazpi militante atxilotu zituen Guardia Zibilak; basaki torturatu eta espetxeratu egin dituzte. Atxiloteta hauek diktadura basatienak gogorarazten dizkigute».

«Eraso zerrendarekin» jarraituz, Tolosaldeko ezker abertzale-

ak hurrengo egunetan espainiar auzitegi ezberdinek plazaratuko dituzten epaiak gogorarazi ditu: «EHAK eta EAE-ANV legez kanpo uzteko erabakia; Amnistiaren aldeko mugimenduen aurkako ebazpena eta Udaltzaren kontrako epaia».

«82an bezala: gerra zikina»

Ezker abertzaleak PSOERI «gerra zikina» eta «gatazka politikoa luzatzeko apustua» egitea leporatu dizkio: «Gure herrian benetako salbuespen egoera bizi dugu eta PSOEk, 82an egin bezala, ezker abertzalearen militanteen aurkako gerra zikina abiarazi du, orain ustezko babes juridikoarekin. PSOE gatazka politikoa luzatzeko apustu irmoa egin du: disidentzia zeinu oro, militante independentista oro espetxeratzeko. Gure etorkizuna espetxea dela entzun diogu behin eta berriz Rubalcaba jaunari, baina erratu egin dira berriro ere pentsatzen badute ezker abertzalearekin dutela arazoa. Arazoa bere buruaren jabe izan nahi duen herri honekin daukate,

eta konbentzimendu osoa dugu herri honek aurrera egingo duela, oztopo guztien gainetik».

Euskal alderdien inguruan

Tolosaldeko ezker abertzaleak jakinarazi duenez, «EAJ-PNVk igandean Donostian euskal preso politikoen eskubideen alde egiteko den manifestazioa debekatu du». Gauzak horrela, EAJk «Estrasburgo eskubide urraketak salatzeko egin digun deia gustu txarreko broma» dela aipatu du ezker abertzaleak; «Giza Eskubideak eta Funtszeko Askatasun Babestari buruzko Europako Hitzarmenaren 9., 10., 11., 13. eta 14. artikulua behin eta berriz urratzen dituztenean, biltzeko edota manifestatzeko eskubideari buruzko artikulua esaterako». PSOEren «laguntzaile leiala» izate ere leporatu dio EAJri, «salbuespen egoera ahalbidertuz».

EA eta Aralar alderdien inguruan, «EAJ-PNVk idatzitako gidoia puntuz puntu jarraitzea eta EAJri hauteskunde kanpaina erraztea» leporatu diete.



Baltasar Garzon epailea. HITZA

Mobilizazioetarako deia

Amaitzeko, Tolosaldeko ezker abertzaleak herritarrei ondorengo egunetan egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko deia egin diete. «Argi gorria piztu da. Stop esan behar diogu basakeria guzti hauei. Horregatik, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen alde indarrak batzera deitu nahi ditugu herritarrek».

Hala, Anoetako plazan elkarretaratzea egingo dute, bihar, 19:30ean. Villabonan eta Zizurkilan bihar 20:00etan elkarretaratzea egingo dute Villabonako plazan. Ibarren 19:30ean batzar informatiboa egingo dute herriko plazan. Tolosan 20:00etan batzar informatiboa egingo dute eta ondoren manifestazioa.

Erabaki dira Leitzako IV. Pilota Txapelketako finaleko bikoteak

A. IMAZ

Iragan asteburuan Leitzako IV. Pilota Txapelketa jokatu zen Amazabal pilotalkuan. Hiru egunetan zehar, 5 maila ezberdinetako pilotariak, bikoteak, nor baino nor aritu ziren. Aurrera Pilota Eskolak antolatutako txapelketaren finalerdiak jokatu ziren ostiralean, larunbatean eta igandean. Gauzak horrela, txapelaren bila arituko diren 10 bikoteak nortzuk izango diren argitu zen.

Finalak: hilaren 21ean

Txapelketaren finalak hilaren 21ean jokatuko dira Leitzako Amazabal pilotalkuan 09:00etatik aurrera. Partida guztiak goizez jokatuko dira.

Alebinetan Garciarena-Iribarria bikoteak Sagastibeltza-Bakaikoa izango dituzte arerio finalean. Infantiletan, Olano-Artola eta Elezkano-Hernandorena izango dira bikote aurkariak. Kadetetan berriz, Loidi-Arratibel eta Arrieta-Jauregiren artean egongo da lehia. Jubeniletan, Jaunarena-Zabaleta eta Ansotegi-Albisu arituko dira txapelaren bila. Azkenik, nagusien mailan, Urtasun-Jauregi bikoteak Renobales-Madariaga izango dituzte aurrean.



Infantilen mailan jokatu zen lehen finalerdia: Tolosa-Jaunarena gerriko urdinez eta Artola-Olano gerriko gorritz. HITZA

Leitzako IV. txapelketako emaitzak

Alebinak

Garciarena-Iribarria	18
Dario-Sarasa	3

Espinal-Gofi	11
Sagastibeltza L-Bakaikoa	18

Infantilak

Olano-Artola	18
Jaunarena-Tolosa	12

Arozana-Apeztegia	2
Elezkano-Hernandorena	18

Kadeteak

Loidi-Arratibel	22
Lopez-Zinkunegi	16

Arrieta-Jauregi	22
Senosiain-Galartza	16

Jubenilak

Apeztegia-Zubiri	11
Jaunarena-Zabaleta	22

Ansotegi-Albisu	22
Sagastibeltza-Arzelus	12

Nagusiak

Urtasun-Jauregi	22
Mitxelena-Mariñelarena	13

Renobales-Madariaga	22
Arraztoa-Bengoetxea	19



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Zizurkil.** Jaiak: 11:30ean meza nagusia, 14:00etan jubilatuen bazkaria eta jolasak, 19:00etan herri kirolak Joseba Otegi eta Jon Rekondo aizkolariekin eta Telleria anaiak harri-jasotzaileekin, 22:00etan *Aupa Etxebeste!* filma.

Kultur Astea

■ **Tolosa.** Haurren Eguna izango da gaur Extremadurako Kultur Astean La Jara elkarteak: 18:00etan haur jolasak, emanaldia eta txokolatada.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Aitzol Udal Euskaltegiak euskararen alde lan egin nahi duten, eta asteen ordubetez mintzalaguna ekimenean parte hartu nahi duten jendea behar du: deitu 605612125 zenbakira, edo idatzi mintzalaguna@euskalerra.org helbidera.

■ **Tolosa.** Hilaren 13 eta 14rako, Pirinioetara mendi irteera antolatuta du Alpino Uzturre elkarteak, Otso-gorrigaina (1.922 m), Kartxela (1.982 m) eta Anie (2.507 m) mendiak igoz. Izen-ematea, elkarteak (Gudari 6, behea. 943 65 27 89),

■ **Tolosa.** Esperientziaren Eskolarako izen-ematea 943 224143 telefonoz zenbakian. Helburua adineko pertsonen garapen pertsonala eta ezagutzak zabaltzen laguntzea da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Ibaiak eta lakuak



PRAGA ● Tolosako Amaia Jauregik ere parte hartu nahi izan du Argazki Lehiaketan, irudi honekin: «Argazkitxo hau bidaltzen dizuet argazki lehiaketarako; aurtengo uztailean Pragako ateratakoa da. Argazkian Pragako Karlos zubi famatua ikus daiteke», dio.

ARAGOI ● Alaine Zubeldiak, berriz, argazki hau aukeratu du lehiaketan parte hartzeko, eta hauxe kontatu digu: «Argazki hau Aragoiko Val d'Aran-en dagoen Malhera Artiga mendiaren magalean ateratu genuen. Mendi gailurrez eta nola ez, behiez, inguratutako parajeen laku eder bat! Merezki du hankak piska bat astintzeak horrelako txokoak aurkitzeko!».



A Agurrak



Zorionak!

Maria Zubillaga (Ibarra). Atzo 89 urte. Seme-alaba eta biloben partetik. Muxu handi bana. Asko maite zaitugu.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak

Zizurkilgo jaiak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



HASI DIRA JADA JAIRIK HERRIKOENAK

ZIZURKIL AURTENGOAN FESTA BATZORDEAK PROTAGONISMO BEREZIA IZAN DU; MAIATZETIK BILERA UGARI EGIN DITUZTE ETA ONDORIOA «EGITARAU ABERATSA» IZAN DA, TARTEAN AUTOEN SLALOMA.

E Elkarrizketa

LURDES GOROSTEGI ▶ Festa Batzordeko kidea



R.CALVO

«Aurten goitik behera herritarrek egindako festak izatea lortu dugu»

Festa Batzordea «Esfortzu berezia» egin dute aurten festak antolatzeko; bizilagun asko bildu dira eta egitarau aberatsa osatzea lortu dute.

R. CALVO

Aurtengo Zizurkilgo jaiak berrikuntza askorekin iritsi dira. Azken urteetan «utzikeria» zela nagusi Festa Batzordean aipatzen dute, baina arazoak atzean utzita aurtengoan «egitarau oparoa» egitea lortu dute. Aniztasunaltzeko gakoak argi ditu Festa Batzordeko Lurdes Gorostegik: ekintza anitzen bidez parte-hartzea bultzatu.

Horretarako adin guztietako jendearen nahiak hartu dituzte gogotan. Bestelako berrikuntzak ere badituzte aurtengo jai egunek; bi asteburuetan banatu dituzte jaiak, pasa den hau eta hurrengoa, eta Festa Batzordearen ikurra ere ateratu dute. Hau guztia gutxi balitz kantua ere badute, hain zuzen ere, Iker Goenagak eta Beñat Barandiaranek eginga. Gorostegik jaien

inguruko xehetasun guztien berri eman du.

Aurtengo jaietan esfortzu berezia egin duzue parte-hartzea bultzatu eta jai herrikoiak egiteko. Zer dela eta apustu hau?

Azken urteetan udaletxeko teknikariak egiten zuen guztia, Batzordetik oso jende gutxi azaltzen zen... Horrexegatik egin dugu apustu hau aurten eta erantzuna oso ona izan da. Festa Batzordea indartzea lortu dugu. Herritar eta blusa dexente elkartu gara berriro eta goitik behera herritarrek egindako festa batzuk izatea lortu dugu. Udaletxeak, noski, udal lan-

gileak jarriko ditu, kontu teknikoak eman...

Jende asko bildu al zarete bilertan?

Batzordean 20 pertsona inguru elkartu izan gara. Maiatza bukaeran hasi ginen biltzen eta ordutik aste-an bi bilera egin ditugu. Gure ustez ekintza guztietan parte hartzeko beharrezkoa da ekintzak antolatzen ere aritzea, eta uste dugu aurten lortuko dugula.

Zein ekintzen bidez indartu nahi duzue parte-hartzea?

Herritarren parte-hartzea bultzatzeko ekintza ugari antolatu ditugu. Ohiko herri bazkariak gain, iaz

bezalaxe Kantu Kale antolatu dugu pasa den asteburuko larunbaterako. Kantu Kalea egiteko uztailean zehar entseguak egiten aritu dira eta irailko egun hauetan biolina eta soinua ere entseatu dute. Herritarrek abesti batzuk aukeratu dituzte, eta ondoren tabernaz-taberna joan dira horiek kantatzen. Aurten iaz baino jende gutxiago azaldu da entseuetara, baina egunean bertan, hala ere, guztien parte hartzea bultzatzeko kantuen letrak biltzen dituzten liburuxkak banatu genituen. Honekin, gainera, adin desberdinetako jendea elkartzea lortu genuen,

Jatetxea
Edaritegia

PASUS

Tel.: 943 249 775
Ernio bidea, 7 • Zizurkil
pasus@pasusrestaurante.com
www.pasusrestaurante.com

Ogi-ZuRi

Okindegia
Gozotegia • Kafetegia

Ogi bereziak eta artisau eran eginikoak

Bulandegi bidea 1-3 • Zizurkil • 943 69 10 00

GARAIE EKINA
AUTO KONPONKETA

Ondo-pasa jaiak

Elbarrena auzoa, 15. poligonoa
Tel-Fax: 943 69 26 84
ZIZURKIL

izan ere gero herri-afaria zegoen Joxe Arregi plazan eta horrela denak girota joan ginen harantz.

Ekintza aniztasunari ere garrantzia eman diozue, beraz.

Ahalegin handia egin dugu guztien iritziak bildu eta egitarau aberatsa osatzeko. Deialdiak e-mailez, ahoz-ahoz edota telefono deien bidez zabaldu ditugu. Udaletxean buzoia bat ere jarri genuen bertan jendearen ekarpenak jasotzeko. Ahalik eta egitarau zabal eta pluralena egiten saiatu gara.

Ekintza gehiago antolatu al dituzte parte-hartzea bultzatu asmoz?

Aurreko urtean bat-batean haur jolasak eta karaokea izan ziren gauetan eta azken momentuan jende asko bildu zen karaokea. Oso ondo ateratu zen, horregatik aurten berriz ere antolatzea erabaki genuen. Lehen larunbateko goizko hiruretan egin genuen, ganberro guztiak elkartu eta ondo pasatzeko. Hurrengo egunerako, igandearako, gazteek bazkaria antolatu zuten. Larunbat goizean, gainera, bigarren eskuko azoka ere izan ge-



R.CALVO

erabaki duzue jaiak bitan banatzea?

Proposamen bat izan zen eta ondo iruditu zitzaigun. Egun handia berez asteartea da, baina oso jende gutxi egiten du lan herrian bertan, eta beraz, bagenekien jende gutxi egongo zela egunean zehar kontu guztietan parte hartzeko. Asteartea erdi erdian geratuta festak bi asteburuetan banatzea egokiago iruditu zitzaigun.

Eta zer egingo duzue orduan gaurko egunean?

Azkenean asteartea jubilatuentzako geratu da; meza nagusia egongo da, bazkaria egingo dute, herri kirolak ere egongo dira... Eguna *Aupa Etxebeste* filmaren proiezioarekin amaituko da. Hauxe ere orain arte inoiz egin ez dugun ekintza izango da.

Bigarren asteburua izango da potentetena, beraz.

Egia esan bai. Ostiralean bertan AHT rueta poteoa egongo da (bizikletekin, patinekin...). Ondoren, kros mistoa egingo dugu, gure nahia kros herrikoia antolatzea baitzen, izan ere lehen umeentzat krosa ere egiten zen, baina gauetan parrandan ibilitakoek ez zuten parte hartzen... Aurtengoan denen parte-hartzea lortzea espero dugu; neska-mutuez osatutako bikoteentzat zuzendu dugu krosa. Saria

lehenengo hamarrentzat izango da, bi afari. Pintxo lehiaketa ere izango dugu ostiralean. Asmoa koadrila guztiak plazan biltzea da giroa jartzeko, ez da lehiaketa gastronomiko bat, ezta gutxiago ere. Epaimahaia ere beste koadrila bat izango da eta saria AHTren aurkako materiala izango da.

Datorren larunbateko izango da egun handia, hala ere.

Egun osoko festa antolatu dugu, behintzat. Herri bazkaria izango da, blusen arteko pentaloia egongo da (koadrilek bost jokotan hartuko dute parte), jokotako bat asto karrera izango delarik, eta denak moztarotuta egongo gara. Ondoren, gaupasa izango da, denak moztarotuta, eta aurten gosaria ere berreskuratu dugu. Orain urte dextente egiten bazen ere ohitura hau utzi egin zen eta aurten berriz ere egingo dugu goizaldeko seitan. Zazpiak inguruan festak dultzaina dianarekin amaituko ditugu.

Berrikuntzeekin jarraituz aurten kantua eta logoa ere ateratu dituzue, ezta?

Logoa gure idatzia eta bidaltzerakoan erabili dugu, eta helburua, batez ere, logoa ikusi eta Festa Batzordearekin identifikatzea zen. Kantua berriz giroa sortzeko garrantzitsua iruditu zitzaigun. Herriari baditugu musika munduan ibiltzen direnak, horien artean, Iker Goenaga trikitilaria eta Beñat Barandiaran gitarrar-jotzailea, haiengana jo eta kantua egiteko proposamena egin genien. Baietz esan ziguten eta beraiek egin dute doinua, letra, grabaketa... guztia. Behin kantua eginda kopiak inguruko taberna eta txosnetan utzi ditugu denek entzun dezaten.



Lain taldeko Leire Berasaluze eta Kristina Aranzabe. HITZA

MUSIKAK ERE IZANGO DU BERE LEKUA FESTETAN

Kontzertuak » Kultur ekitaldi ugari antolatu dituzte jaietarako; kontzertuak eta zinema, besteak beste.

R. CALVO

Aurtengo jaietan kulturak ere badu bere lekua. Arte disziplina desberdinei egin diete kasu eta ohiko musika kontzertuekin batera zinema eta dantza eskaintzea ere erabaki dute.

Kontzertuak pasa den larunbatean hasi ziren; Skatu, Zulu 9:30 eta Fermin Valencia. Larunbat honetan berriz, Aritz Sound Systemen txanda izango da. 23.00tatik aurrera alaituko du txosnetako giroa Hernaniko musikazale honek.

Hurrengo egunean, festetako

azken eguna hain zuzen, Villabonako Lain taldeak eskainiko du kontzertua. Ondoren, Laket berebena taldearen txanda izango da goizaldera arte.

Kultur ekitaldiekin amaitzeko gaur bertan 22.00etan Joxe Arregi plazan ikusi ahal izango den *Aupa Etxebeste* filmaz hitz egin behar dugu.

Asier Altunak eta Telmo Esnalek zuzendutako lan honetan etxebestetarren gora-beherak dira nagusi. Familia oporretara doan egun berean diru gabe geratzen dira. Itxurak mantendu behar dituzte, hala ere, eta oporrak etxean gordeta pasatzea erabakitzen dute. Itxurakeriak alde batera utzita eta euren arteko miseriak elkarri aurpegiatu ondoren, euren bizitzako oporrik onenak pasako dituzte.

Azkenean gaurko eguna jubilatuentzat geratu da; meza nagusia egingo dute, herri kirolak antolatu dituzte...

Jaiak bi asteburutan banatzearena proposamen bat izan zen eta ondo iruditu zitzaigun

Ahalegin handia egin dugu guztien iritziak bildu eta egitarau aberatsa osatu ahal izateko

nuen Joxe Arregi plazan Urkamendi Elkarteak antolatu ohi duen sardina eta sagardo dastaketa baino lehen. Edoz gerturatu ahal zen plazara bere trasteekin, prezioa jarri eta bertan saldu ahal zuen. Dirua, noski, norberarentzat izan zen, gure nahia gauzen berberabilpena bultzatzea besterik ez zen eta.

Orain arte aipatutakoa lehen asteburuan egin duzue, baina aurten, gainera, bigarren festa-asteburua ere izango da. Zergatik

Talleres
ARRASTOA S.L.
Jai Zoriontsuak izan!
Ernio bidea, 25, Poligonoa 35, Pabillioia
Posta kutxa 61
ZIZURKIL
Tel.: 943 69 44 41
Fax: 943 69 41 02

MIRARI
Parafarmazia
* HAUREN ELIKADURA ETA HIGIENEA
* HELDUEN EDERTASUNA ETA HIGIENEA
* HAUREN ETA HELDUEN DERMOKOSMETIKA
Kale Berria, 56 • Billabona • Tel.: 943 692 351
parafarmazia.mirari@telefonica.net

EDARITEGIA
Egarrri
♦ Otartekoak
♦ Razioak
♦ Plater konbinatuak
Jai zoriontsuak pasa!
Ernio bidea, 7 • ZIZURKIL • Tel.: 943 69 62 57



Iaz egin zen lehenengoz Autoen Zizurkilgo I. Slaloma. Irudian, probaren une bat. HITZA

Autoen Zizurkilgo II. Slaloma ikusgai izango da aurten ere herriko jaietan

Kirola » Iazko urtean bezala, aurtengo Zizurkilgo jaiak Autoen Slaloma eskainiko dute herriko biribilgunean.

R. CALVO

Pasa den urteko jaietan egin zuten lehenengoz lehiaketa eta «lortutako arrakasta ikusita» udaletxeak aurten berriz ere antolatzea erabaki du. Autoen Zizurkilgo II. Slaloma igande honetan izango da, hilak 14, eta iazkoan bezalaxe jende asko gerturatuko dela uste du lehiaketa antolatzen aritu den Saul Roblesekin.

Ez dira edonolako probak, gainera, izan ere bertan egiten diren probetako puntuazioek Euskadiko Txapelketarako hartuko dira kontuan. Bi proba besterik ez dira

geratzen Euskadiko Txapelketa bukatzeko eta beraz, Zizurkilekoak badu bere garrantzia. Bertan 25 eta 30 partaide artean hartuko dute parte, iaz bezala Errioxatik ere inor gerturatzea espero dute, eta lortzen duten puntuazioen arabera urriaren amaieran Barakaldoko BECen izango den Euskadiko Txapelketaren finalean aritzeko aukera izan dezakete.

Trebetasuna

Roblesekin agertutakoaren arabera, Slalom probetan batez ere trebetasuna da garrantzitsua. «Abiadura baino trebetasuna hartzen da kontuan. Lau auto mota arituko dira (1.600 cc. artekoak, 1.600 cc. gorakoak, atzeko trakzioak eta kart-crossak). Behar bada, ikusgarriak kart-crossak dira; kar baten modukoak dira baina karrozeria dutenak», azaldu du. Izan ere,

abiadura gehienez 50 kilometro ordukoa izaten da era honetako probetan, «ikusgarriena egiten diren trebetasun ariketak dira, zailtzarrik gabe. Konoak jartzen ditugu eta haien artean ibiltzen dira autoak, eta noski konoak ezin dituzte ikutu. Proba bat konoan zero bat egitea izaten da, hau da konoa ikutu gabe inguratzea, beste batzuetan zortzi bat marraztu behar dute konoaren inguruan», azaldu du Roblesekin. Probak autoak geldirik daudela baina motorrak martxan dituztela hasiko dira.

Probak igande goizean izango dira eta Zizurkilgo biribiltetan hasiko dira. Goizeko bederatzia eta hamarrak bitarte autoen egiaztatze teknikoak egingo dituzte eta ondoren, 10:30ak inguruan, entrenamenduak egiten hasiko dira. Probak beraz, jarraian egingo dituzte, entrenamenduak amaituta,

eta probak 13:30erako amaitzea espero dute.

Iazkoan ere egin zuten proba eta espero zuten baino jende gehiago gerturatu zen hura ikustera. Robles berak jo zuen iaz udaletxera proba egiteko proposamenarekin, baina arrakasta ikusita aurtengoan udaletxea bera izan da berarengana jo duena. «Euskadiko Txapelketarako puntuatzen duten probak hemen egin ahal izatea oso garrantzitsua da guretzeko. Mundu honetan aritzen garenak normalean gora eta behera kilometro asko egin behar izaten ditugu, eta beraz,

erosoa da oso oraingoan proba horietako bat etxean egin ahal izatea», argitu du. Robles berak, hala ere, «pauso bat aurrera» eman du eta orain ralietan ibiltzen da.

Iazko proban Urbasa taldeko Ibai Iglesias izan zen garaile. Iglesiasek Kart-Cross Nitokar Evo II autoarekin irabazi zuen, 54,96 segundoko denborarekin. Bigarren Ion Maritxalar ibartarra izan zen

«Ikusgarrienak kart-crossak dira; kar baten modukoak dira baina karrozeria dutenak»

«25 eta 30 partaide bitarte ariko dira datorren igandeko proban; iazko kopuru bera ia»

Nitokar autoarekin, 56,39 segundorekin. Hirugarren Iñigo Olabegeaskoetxea izan zen, Peugeot 309 GTI autoarekin eta 59,64 segundoginez. Mikel Erauskain alegiarra bosgarren sailkatu zen eta Aaron Robles zizurkildarra 13. postuan.

Guztira 25 gidarik hartu zuten parte proban eta lau mailatan banatu zuten proba, aurtun bezala. 1.600 zentimetro kubiko arteko autoetan Iker Balart izan zen irabazlea, Iker Nograrori ia bi segundoko aldea eta Ametz Mendizabali lau segundoko aldea atera ondoren. 1.600 zentimetro kubikotik gorako autoetan Iñigo Olabegeaskoetxea izan zen aurrena. Hamar segundoko baino gehiagoko aldea aterazioz Iñigo Artetxeri eta ia hamabi segundokoa Antonio Riojari. Atzeko gurgipiletan trakzioa dutenen artean Fernando Flaño izan zen azkarrena. Aaron Robles eta Javier Martinez bigarren eta hirugarren izan ziren, hurrenez hurren, zortzi eta hamabi segundotara. Azkenik, Kart-Cross mailan Ibai Iglesiasekin eta Ion Maritxalarrekin batera podioan Imanol Lacar izan zen.

Ea aurtengo emaitzak iazkoak baino hobekak diren.

CATALAN AZULEJOAK

Portzelana • Gres
Harri naturala

eta imitaziozkoa

Europar ereduak
Erakusketa handia

Asteasu errepeidea, K 1200 • 628 734 223 • 687 85 83 63

BILTEGIA:
20150 ZIZURKIL



ZIZURKILGO UDALAK

Jai zoriontsuak opa dizkizue!

PARRANDAN ERE EUSKARA AHOAN!